

Arrasate

P R E S S U

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 15a / 606. zenbakia



SALBAMENDUKO TXAKURRAK

Lur Terranova arrazako Arrasateko txakurrak salbamenduko laugarren maila eskuratu berri du. Halako maila lortu duen Euskal Herriko txakur bakarra da.

KIROLA: ARKU TIROKETA TXAPELKETA/10 • KULTURA: SANTA ZEZILIA OSPATZEKO, KONTZERTUAK/14

ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

ORAINGO ASTEAN: GREMIOEN GIDA/24



IPARRORRATZA...

Bidaiatzen galtzeko!

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*


Martitzenero,
20:30etan eta 22:30etan

Aurkezlea:
Julen Aranguren

KALEINKESTA/ Zela konponketan zara euruekin? Honezkero ohittu zara?



XABIER GONZÁLEZ
Lanbakue



JON OTXOA
Langillie



AITOR CABELLO
Ikaslie



YOLANDA PALMA
Langillie



MERCEDES IÑARRA
Langillie



MARIVI DÁVILA
Langillie

Ondiokan larreiko ondo ez; denpora luzie kanpuen pasau dot, eta ondiokan ez maz ohittu. Beti pezetetara aldiaketa ibiltten naz. Gaiñera, euruekin gehixago fije-tan naz preziuen.

Pentsetan dot konponketan garela, baiñe konturatu gare gauzak askoz garestixago daguzela, eurue aprobetxau daue horretarako. Lehen 20 pezeta balixo euenak oin 30 pezeta balixo dau.


Ondo. Ondiokan ez dot eurotan bakarrik pentsetan, baiñe ez nabil txarto. Uste dot oin gauzek apur bat garestixago daguzela, amaren pagiek gutxi irauten dau-eta poltsikuen.

Kopuru altue bada, pentsau egin biher dot, bajue bada, konponketan naz. Eta euruekin ogixe, egunkari-xe... igo egin die. Kajeruetan lehen baiño gehixago ataraten dot.

Ohiketan hasi gare, gehixenbat, kopuru txikixekin eta eguneroko gauzekin. Baiñe ondiokan biderketak egitten ibiltten gare. Eta gauza askoren preziuek borobildu egin dittue.

Oin ondo, baiñe hasieran ez. Dana dala, pezetetan pentsetan dot. Eta uste dot euruek pezetak baiño gutxiago irauten dauela poltsikuen. Gatzague da dirue zainketie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK CORREOSEN ZAMALANAK Correosko kamioilariak arazo handiak izaten ditu Correosko bulego alboan zamalanak egiteko. Astelehenezik zapatuta artean goiz-eguerdian hainbat aldiz aparkatzeko lekua behar izaten du, eta errepidean hori zehazten duen marra dagoen arren, autoak aparkatuta egoten dira. Horren ondorioz, errepidea guztiz moztu beharrean izaten da, eta arazoak sortzen ditu.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/8

KIROLA /12

KULTURA /14

Iruzurrak izan dira gasarekin

Gasaren iruzurra dela eta, salaketak izan dira. Ustez Bilboko enpresa bat ari da iruzurretan herrian.

Txuri Urdin Taldea

Realeko beste jarraitzaile talde bat sortu dute Arrasaten: Arrasate Txuri Urdin taldea.

Ingalaterrako Lets Zep taldea

Azaroaren 20an, Ingalaterrako Lets Zep taldeak Led Zeppelin taldearen kantuak gogoratuko ditu.

ASTEKODATUA

40

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN TXAKURRAK

Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, arriskutsuak izan daitezkeen berrogei txakur errol-datuta daude gure udalerrian. Eta, oraingoz, sei baimen bakarrik onartu ditu Udalak.

BESTE EKESANA

“Hiru urte daramatzat Bartzelonan, eta dagoeneko ia hangoa naizela diot. (...)

Kanarietako Nazioarteko Bideo eta Multimedia Jaialdian Elena Marinek eta biok Dokumental Onenaren saria jaso dugu, *Con la bombona a cuestras* lanarekin. Bartzelonako Radal auzoko familia pakistandar baten gaineko lana da. Familia horren burua butano-banatzaillea da, eta Bartzelonan butano-banatzailleek ez dute kontraturik ezta soldata finkorik ere. Prozesua oso luzea izan da: duela bi urte, familiarekin harremanetan jarri ginen, ia urte osoa grabatzen ibili gara, eta, duela urte eta erdi, muntaia egin genuen (...) **Lehiaketan parte hartzea intuizio hutsa izan zen, oso itxura ona hartu genion”**

IBAN DEL CAMPO
ARRASATE IRRATIA/02-11-07

HERRITARREN BERBAK/ Antxon Mendizabal



Teknologiaren paradigmak

Atomoa menderatu ondoren eta lurralde genetiko konkistatu ondoren, zientzialariek burmuina ikertzen dute orain. Horrela, Japoniako Riken institutuak memoria, pentsamendu logikoa, intuizioa eta desioak edukiko lituzkeen “makina-burmuina” sortu nahi du.

Gaur egun, neurobiologia oinarritzko ikerketaren garaian dago. 1950eko hamarkadaren bukaeran biologia molekularra zegoen lekuan edo XX. gizaldiaren hasieran “fisika” zegoen leku berean. Baina Japonian, burmuin artifiziala sortzen ari dira eta hori bai da berria. Hajek diotenez, 2010. urtean, memoria, pentsamendu intuikorra eta arrazonamendu logikoa edukiko lituzkeen ordenagailuak izango dira. 2015. urtea baino lehenago ordenadore berri horrek berezko sentimendu eta desioak edukiko ditu. Beste modu baten esanda, gizaki eta ordenagailuen arteko mugak ezabatuko dira.

Japoniarrek sortutako burmuin berriek gizakiekin eztabaidatuko dute gizakiekin dagozkien arazoan eta gizaki-makina horiek gu bezain azkarrak izango dira. Soilik, desberdintasun txiki bat dago: gu hilgarriak gara eta 2020. urtean biziko diren makina

“Gu hilgarriak gara eta 2020an biziko diren makina inteligente edo burmuin horiek ia hilezinak izango dira”

inteligente edo burmuin horiek, alderantziz, ia hilezinak izango dira. Azken horiek, gizaldi askotako esperientzia eta ezagutza mordoa har dezakete.

Aurkikuntza berri horrek mikroelektronikaren

iraultzatik datozen teknologia berriek, internet, genoma edo klonazioek dakartzaten eraldaketa sozialak baino askoz eraldaketa handiagoa ekar diezaguke. Japoniarrak elektronikari, informatikari eta robotikari munduko lehenak direnez, denbora gutxira “Posthumanitatean” denoi sar diezagukete. Neoliberalismoa eta Inperialismo basatia jaun eta jabe diren mundu honetan, oso kezagarria izan daiteke.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 15
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

ZAPATUA, 16
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

DOMEKA, 17
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65

ASTELEHENA, 18
Azkoaga, Ferrerías. 943 79 15 15

MARTITZENA, 19
Azkoaga, Iturriotz. 943 79 79 99

EGUAZTENA, 20
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26

EGUENA, 21
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate. 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

INSTITUTUEN BAZKARIA
Institutuaren 25. urteurrena dela eta, irakasleendako eta ikasle izandakoendako bazkaria antolatu dute. Azaroaren 30ean (zapatua) izango da bazkaria, 14:30ean, Uarkape jatetxean. Interesatuok, azaroaren 22a aurretik Institutura deitu edo Euskadiko Kutxan 22 euro sartu.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Azaroaren 21ean, eguenean, *Antes que anochezca* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

HAUR HEZKUNTZA
Azaroaren 22an eta 23an, MUko HUHEZIk Haur Hezkuntzaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu.

LETS ZEP ETA JUKEBOX
Azaroaren 20an, eguaztenean, Lets Zep eta Jukebox musika taldeek kontzertua emango dute Amaia Udal Antzokiko hall-ean, 20:30ean.

MASKULINOTASUNAZ
ESK sindikatuak, Emakume Sailaren laguntzarekin, Maskulinitasun Jardunaldiak antolatu ditu. Hainbat jardueraren artean, azaroaren 16an, Gizonezkoendako lantegia antolatu dute. Izena emateko, 943 79 04 15 telefonora deitu.

AEDrenAGENDA

BERTSO-AFARIA
Gaur, egubakoitza, bertso-afaria egingo dute AEDko txokoa. Sustrai Colinak eta Aitor Mendiluzek parte hartuko dute.

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute. Animatu eta parte hartu!

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


A-20 guneko auzokideak kexu ziren hango lanekin

Musakolako A-20ko guneko lanen ondorioz, auzokideen, Udalaren eta Construcciones Brues-en artean arazoak izan ziren. Auzokideen esanetan, lan horiek ez ziren legalak. Horrez gain, bizilagunak ez zeuden konforme ordaindu beharreko kopuruarekin eta lanek moztutako kaleekin.





BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Ugarixua”



Igela.
—Probaittuzu ugarixo-ankak? Ba oso gozuak ei die.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Astlehenean 'MIR' saioa hasiko da

Astlehenean, 20:00etan, *MIR* saioa hasiko da Arrasate Irratian: *Maiuskulaz Idatzitako Rocka*. Gaizka Vitoriak eta Iban Idigorasek zuzenduko dute saioa, eta musika izango da nagusi. Era guztietako musika, baina, bereziki, rock, heavy eta hip-hop doinuak. Iazko ikasturtean ere entzungai izan genuen *MIR* saioa. Bestalde, martitzenetan, 20:00etan, *Txorrorrien* saioa izango duzue, Jokin Etxebarriak eta Mikel Aranbuk aurkeztuta.

Eusebio Iñarra 'Kontu kontari' eguaztenero

Eguazten goizetan Eusebio Iñarra izaten da Arrasate Irratian, eta Eusebioren egitekoa izaten da garai bateko kontuak gogora ekartzea. Gai historikoak eta eguneroko bizitzarekin lotutakoak jorratzen ditu Eusebiok; horretarako, bere bizipenetara jotzen du sarritan. Dagoeneko jarraitzaile ugari ditu tarte horrek, eta jakin ezazue entzuleok ere esku har dezakezuela, zuen bizipenak kontatuta. Horretarako, deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.

HAUGIROA!

MINIMOA 7°C
Zapatua, 9

MAXIMOA 17°C
Domeka, 10

ASTEKO EURIA (l/m²) 84,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	16 °C	7 °C	37,4 l/m²
Eguena, 7	12 °C	8 °C	21,1 l/m²
Egubakoitza, 8	14 °C	9 °C	4,6 l/m²
Zapatua, 9	16 °C	7 °C	20,5 l/m²
Domeka, 10	17 °C	14 °C	0,9 l/m²
Astlehena, 11	15 °C	11 °C	0,2 l/m²
Martitzena, 12	16 °C	8 °C	— l/m²

Bergaroko San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia: Maria Agirre eta Nerea Zubietek gidatuta.
09:20 Eguneko agenda.
09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabalak gidatutako magazina.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte.
12:00 Euskadi Irratiko albistegia.
12:06 Musika berriaren tarte: orain dela gutxi kaleratutako abestiak entzuteko aukera.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

ASTELEHENA
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 Txorrorrien: Albiste bitxiak eta musika.

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak.

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak.

ASTEABIHIZETAN

Maskulintasunaren gaineko jardunaldiak

Jardunaldi horiek gizonezkoek ohiko eredu maskulinoez hausnarketa egitea dute helburu: eredu horien irauteak egun dakartzen kalteak aztertu, eredu horiek kolokan jartzeko arrazoia, edo zelan hobetu gizonezko eta emakumezkoen arteko elkarbizitza.

Martitzenean, arratsaldeko zazpitan, jende asko elkartu zen Monterron jauregian egin zuten berbaldian. Gaur, egubakoitza, beste berbaldi bat egingo dute, Arrasateko udaletxe osoko bilkuren aretoan. *Gizonezkoak emakumezkoen aldaketaren aurrean* gaia landuko dute. 19:00etan hasiko da berbaldia.

Bisitaldiak arautzeko kanpaina

Arrasateko eskualde ospitalean beste kanpaina bat jarri dute abian. Bisitaldien arauen gaineko kanpaina da, eta ospitalera bisitan joaten direnak arau horiek betetzeak duen garrantziaz kontzientziatu gura dituzte.

Eskualde ospitalean badira bisitaldiak arautzen dituzten neurri batzuk, eta neurri horiek betetzeak garrantzi handia du: bai ospitalean lanean diharduten mediku eta erizainendako, baita gaixoendako ere. Jendea horretaz kontzientziatzeko, kanpaina bat jarri dute abian Debagoieneko eskualde ospitalean.

Debagoiena Agrotur turismo ferian

Joan den egubakoitzetik domekara bitartean baserri turismoaren gaineko azoka izan zen Katalunian. Agrotur du izena azoka horrek, eta aurten bederatzigarren aldiz egin dute.

Kataluniatik Euskal Herrira turista asko etortzen direla eta, Gipuzkoak ere mahaia izan du azoka horretan. Horrela, Debagoieneko herrien informazioa aurkitu ahal izan da aurten Agrotur turismo ferian, baita Arrasatekoa ere.



Misiolari indiarra pobreziaz berbetan

Indira Raona indiarra Arrasaten izan da egunotan pobrezia-aren gainean berba egiten. Oro har, Hirugarren Munduko arazoa aztertu zuen, eta herri haiek jasaten duten pobrezia nabarmendu zuen Arizmendiko umeen aurrean. Orain, Zaragozan izango da bi urtez, misiolari lanetan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Keinu txikiak, ispilu

Ez da lehenengo aldia gogora ekartzen duguna hainbat pertsonaiak eta zenbait giza alorrek euskararekiko eta euskal kutsua duenarekiko hartzen duten jarrera eskasa. Gauza batzuetan badirudi aurrera beharrean atzera egiten dugula, eta askok eta askok diote bete-bete frankismo-
ra bueltatu garela. Halaxe esaten zidan baita ere nire

lagun Gregoriok.

Aspaldian barrabaskeria asko gertatzen ari badira ere, gauza eta keinu txikietan ere oso agerian gelditzen dira jarrera horiek. Horra hor, esaterako, dagoeneko bat baino gehiago egin dituen Espainiako Estatuko ordezkariaren, Enrique Villarren, azkena. Duela gutxi, Legebiltzarrean, Lidon epaile zenari egindako omenaldian,

Ibarretxe euskaraz berbetan hasi zen. Ibarretxeren lehenengo hitzak entzun bezain laster, Villarrek entzungailuak lurrera bota zituen eta kezuka hasi zen, "hemen ere euskara entzun behar!", esanez. Villarren modukoek urdaila eta abiadura nahastea oso gustuko dute; eta Villar Espainiako Estatuko gobernuaren ordezkari den heinean, agerian uzten du gobernuak ez dituela euskara eta euskal izaera onartzen.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

GABONAK ATE JOKA, ETA ARRASATEKO KALEAK ARGI BERRIEKIN APAINDUTA

Jendeak dioenez, Gabonak gero eta lehenago iragartzen dituzte, eta merkataritza etxeek ederto aprobetxatzen dute hori. Azaro erdialdean gaude, baina badirudi oraindik Gabonak urrun daudela. Arrasateko kaleak Gabonetako argiekin apaintzen hasi dira. Kale batzuetan lehengo argiak jarriko

dituzte, eta beste kale batzuetan argi berriek eman-
go diote kaleari Gabon kutsua. Argi berri horiek, argi-hariak, aurrekoak baino merkeagoak dira, eta, horrez gain, apurtzen ere gaitzagoak. Badirudi gazte asko dibertsio barik geratuko dela aurten; baina aurrekoak bezain politak dira? /X.U.

arbolapeta

arrasate

peinke

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Nobedadea:
neurri handiak

Larruzko jantzietan
espezialista den baten
bilduma osoena.

Espoloia, 6 • BERGARA • 943 76 20 70

ELKARRIZKETA

MERTXE VALDIVIESO/TERRANOVA TXAKURREN JABEA

“Salbamenduko laugarren maila eskuratu duen euskal txakur bakarra da Lur”

IKER BARANDIARAN

Mertxe Valdiviesoren eta Josu Beitiaren terranova arrazako *Lur* txakurak salbamenduko laugarren maila eskuratu du, Espainiako Estatuko beste hiru txakurrek besterik ez dutena.

Zenbat urte daukate zure txakurrek eta zein arrazakoak dira? Pisu handia izango dute, ezta?

Lur-ek bost urte ditu, eta *Hartz*-ek bi. Biak terranova arrazakoak dira. *Lur*-ek hirurogeita hiru kilo pisatzen du eta *Hartz*-ek, berrogeita hamazazpi; nik baino pisu handiagoa dute.

Noiz eta non erosi zenituzten *Lur* eta *Artz*?

Lur, duela bost urte, Madrilgo txakur-hazle bati erosi genion. *Hartz* geroago erosi genion Madrilgo hazle berari. Ama desberdinak dituzte, baina aita bera dute.

Argi zenuten terranova arrazako txakurra erosi nahi zenutela?

Nik, egia esatearren, Brieko artzain txakurra erosi gura nuen, baina etxean egoteko oso urdu-riak dira. Txakurren gaineko liburuak begiratzen hasi ginen, eta terranova aukeratu genuen. Nik txakur handia gura nuen.

Terranova arrazako txakurrek zein berezitasun dituzte?

Txakur handiak dira, oso lasaiak eta maitekorak, eta lo asko egiten dute. Ura asko atsegin dute; salbamendukoak dira. Ille berezia daukate; bustitzen direla badirudi ere, goialdea bakarrik bustitzen zaie. Aspaldi, arrantzale euskaldunek erabiltzen zituzten. Beste bitxikeria bat da hankak ahateen itxurakoak dituztela. Terranova txakurren artean hiru mota daude: bata, marroia; beste bat, zuri-beltza; eta hirugarrena, beltza. Baina euren artean ez dago alderik, eta hirurak etxerako txakurrak dira, umeen oso lagunak. Bakarrik uzten badituzu, deprimitu egiten dira. Leku batetik bestera jarraitu egiten zaituzte.

Eta aurretik pentsatuta zeneukan *Lur*-i salbamenduko ariketak erakustea?

Txakurra erosteko uanean, txakur-hazlearen alabarekin topo egin genuen, eta neska hark txakurrei salbamendua egiten irakasten die. Salbamenduaz berba egin zidan, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Zaletasun ona da, eta, gainera, jende berria ezagutzeko aukera ematen du. Uretan lanean hasi aurretik, *Lur* lurre-

Argazkian, ezkerrean *Hartz* eta eskuman *Lur*.

IKER BARANDIARAN

“Txakurra hartu aurretik, birritan pentsatu behar da. Txakurrari denbora eskaini behar zaio”

an hezi gura genuen.

***Lur*-ek zer-nolako ariketak egiten ditu?**

Uretan lau maila daude: lehenengoan, oinarrikoenean, txalupa atzetik igerian bost minutu egin behar ditu. Gero, makila eta soka bana hartu behar ditu. Bigarren eta hirugarren mailan hain-

“Terranovak lasaiak eta maitekorak dira. Bakarrik uzten badituzu, deprimitu egiten dira”

bat ariketa daude: epaileak lurrean hiruki bat marraztu, eta txakurrak objektu batekin hainbat proba egin behar ditu; txakurrak hamar minutu igeri egin behar ditu; txalupatik arraun bat bota eta haren bila joan behar da; uretan dagoen surflari bat soka baten laguntzarekin txaluparaino era-

“Euskal Herrian terranova txakurren trebatzea sustatzeko elkarteak eratu gura dugu”

man beharko du; eta maniki bat uretatik atera beharko du, besteak beste.

Laugarren mailan txakurren eta gidariaren artean elkar ulertze handia egon behar da. Txakurrak nire ondoan ordu laurden igeri egin behar du. Horrez gainera, uretan dauden lagun

batzuk ertzeran eraman behar ditu, bata eskumuturretik helduta eta bestea arnes baten laguntzarekin. Jarraian, euren ondoan etzanda bi minutuz egon behar du, haiei berotasuna emateko. Bitartean, nik ezkatuta egon behar dut. Horiek dira, besteak beste, egin beharko dituen ariketak.

Salbamenduko laugarren maila hori Espainiako Estatuko lau txakurrek besterik ez dute eskuratu...

Bai, hala da. Oraingoan, *Lur* salbamenduko maila lortu duen Euskal Herriko txakur bakarra da.

Non eskuratu du *Lur*-ek laugarren maila hori?

Valentziako Oniva herrian, Gandiatik oso gertu. Lau probetatik bat itsasertzean izan behar da beti.

Inoiz eraman dituztu *Lur* edo *Artz* edertasun lehiaketaren batera?

Behin, *Lur* lehiaketa batera eraman nuen, baina egun osoa kaiola baten barruan igaro zuen eta uneoro orrazten zuten. Txakurra ez zen gustura egon, eta ez dut beste inoiz eramango.

Txakurrak eta txakurren jabeak orokorrean hartuta, bietako zein dira arrisku-itsuak?

Nire iritziz, arriskutsuenak jabeak dira, ez dituztelako txakurrak ondo hezten. Baina arazo handiena da jendeak txakurrak hartzeko-orduan ez duela bi aldiz pentsatzen. Txakurrari denbora eman behar zaio, beharrak ditu eta norberarekin egon behar du. Ezin da txakur bat ia beti lotuta eduki; ez da harritzekoa gero txakurra bortitza izatea.

Zein dedikazio ematen diezue txakurrei?

Eguneroko dedikazioa. Egunero paseatzera atera behar ditugu. Besterik ez, oso lasaiak dira eta. Astegunez gainera, asteburuetan eta oporretan ere norberarekin eraman behar dira. Guk gustura eramaten ditugu, baina oso kontuan hartzekoa da.

Eta zer moduz dabil *Artz*, txikiena?

Lur baino askoz urduriagoa da *Artz*, eta, era berean, beldurtiagoa. *Hartz*-i ere erakusten hasi gara, baina alferfuta dabil.

Terranova txakurrak dituzten elkarteren baten sartuta zaudete?

Bai, Espainiako Estatuko terranova Txakurren Elkarteak gaude, eta orain, Euskal Herri mailako beste elkarte bat eratu gura dugu, AFAT (Terranova Txakurren Trebatzea Sustatzeko Elkarteak) izenekoa. Jendeak txakurrekin ibiltzeko zaletasuna bultzatu gura dugu.

GIZARTEA/ Txakur arriskutsuak edukitzeko baimenak

Txakur arriskutsuak izateko baimen gutxi eman dituzte

UBANE MADERA

Bukatzean dago arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko baimena eskatzeko epea. Eta Arrasaten erroldatuta dauden txakurren jabeen laurdenak ere ez du eskatu baimena. Edozelan ere, Udalak esan digu jabe asko joan direla informazio bila.

Arriskutsuak izan daitezkeen berrogei txakur daude erroldatuta gure udalerrian. Eta, oraingoz, sei baimen bakarrik onartu ditu Arrasateko Udalak. Hala adierazi digu Udaleko Zerbitzu Sailak oraingo astean. Edozelan ere, gainerako txakurren jabeetako asko informazio bila joan direla ere gaineratu digu sail horrek. Aurrera begira, eta txakurren gai horrekin segituz, bando bat aterako du Udalak, herritarrei informazio orokorra emateko.

BAIMENAK, ZEINENDAKO?

Jakinaraziko dute, adibidez, arriskutsuak izan daitezkeen txakur bat izanez gero, haren jabeaz gain, animaliaaren ardura eduki dezakeen edozeinek eskuratu behar duela udal baimena. Esaterako, txakur hori paseatzera ateratzen duen edozeinek baimena izan behar du, bestela ezin izango du txakurra atera.

Era berean, Udalak gogoraziko du legeak zortzi txakur arraza sartu dituela arriskutsuen zerrendan, baina badaudela arris-



ARTXIBOA

Legeak zortzi txakur arraza sartu ditu arriskutsuen zerrendan, tartean, rottweilerra.

kutsuak izan daitezkeen txakur gehiago ere; adibidez, erasoak egin dituzten edo erasokorrek izan daitezkeen edozein txakur. Edo legeak zehaztutako baldintza jakinak (itxura indartsua, ile motza, lepo zabal, motz eta gihartsua, eta abar) betetzen dituen zenbait txakur.

Eta txakurrez gain, txakurren jabeek ere bete behar dituzte baldintza zehatzak txakurrak edukitzeko: esaterako, aurrekari penalak izanez gero, aurrekari motaren mende izango da baimena eskuratzeko aukera. Eta, besteak beste, pertsonaren ahalmen fisiko eta gaitasun psikologikoaren gaineko egiaztagiria ere aurkeztu beharko dute.


Udalak emandako baimen

horiek bost. urterako dira; gero, berritu egin beharko dituzte.

BESTELAKO ARAUAK

Dena dela, baimen horiez gain, badira txakurren bat izanez gero bete beharreko beste arau batzuk ere: adibidez, txakur guzti-guztiak kalean lotuta eraman behar dira, derrigorrez. Eta, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak, berriz, lotuta eta muturrekoarekin eraman behar dira.

Baimenen gainean, berriz, honako arraza hauen txakurren jabeek eskatu behar dute derrigor baimena, gobernuaren arabera: pit bull terrierra, staffordshire bull terrierra, rottweilerra, Argentinako dogoa, fila brasileiroa, tosa inua eta akita inua.



Aralar aurkeztu dute Arrasaten

Eskubide batzuen aldeko lankidetzaren moduan aurkeztu zuten Aralar alderdia Arrasaten. Hizlarien artean, besteak beste, Juan Martin Elexpuru idazle bergararra izan zen. Aralar alderdiaren jatorriaren eta zergatiaren berri eman zuten, esanez, oro har, Lizarra-Garaziko ituna eta su-etenaren haustura izan direla alderdiaren abiapuntu. Militante berriak egiteko orriak ere banatu zituzten.



UBANE MADERA

Odola ematea bizitza ematea dela dio kanpainaren irudi berriak.

Odola ematera joateko deialdia egin dute, irudi berriarekin

UBANE MADERA

Aurrerantzean, odola ematera joateko kanpainak itxura berria izango du. Leloa eta irudia, biak berritu dituzte. Joan den astea ezker ari dira Arrasaten odola batzen, eta datozen egunotan ere izango dira.

Osakidetza irudi berria estreinatu du odola batzeko egiten dituen kanpainetarako. Leloa aldatu dute, baita leloari laguntzen doan irudia ere.

Leloiari dagokionez, orain artekoa *Lagun iezaguzu gera ez dadin* izan da; horrekin batera, *Eman ezazu odola* eskaera egiten zuen Osakidetza. Eta horri laguntzen bihotz baten irudia ageri zen, ordulari baten orratzekin.

Aurrerantzean, berriz, *Hauxe da bizitza* izango da Osakidetza erabiliko duen leloa. Azal-

pen moduan, *Odola ematea bizitza da* gaineratu dute. Eta horri laguntzen mutil/neska gazte baten argazkia ageri da, odola ematen ari balitz bezala.

DATORREN ASTEAN ODOLA EMATEKO DEIA

Hain justu ere, irudi berri hori estreinatzearekin batera, Arrasaten odola batzen ari dira egunotan. Datorren martitzenean, eguaztenean eta eguenean izango dira ambulatorioan odola batzen, 16:15etik 20:00ak arte.

Arabako Odol Bankuak eta Arabako Odol Emaileen Elkarteak emandako datuen arabera, igo egin da odol emaleen kopurua; urte hasieratik urriaren 31ra arteko datuen arabera, iaz baino 700 odol emale gehiago dago. Edozelan ere, gaineratu digute geroago eta odol gehiago behar dela; hortaz, komeni da ahalik eta odol emale gehien joatea odola ematera.

LABUR

Zenbait lagunek presoan aldeko ekimena egin zuten Behobia-Donostia maratoi erdian

Bigarren urtez, Arrasateko preso politikoen ordezkari izan dute Behobia-Donostia lasterketan. Hain zuzen ere, *Euskal Presoak Euskal Herrira* leloa zuten kamisetekin korritu zuten Arrasateko 14 lagunek. Herriko euskal preso politikoen egoera salatu gura izan zuten horrela. Besteak beste, euskal presoek Euskal Herriratzea eskatu zuten, espetxe zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak askatzea, baita zigor sendaezina dutenak ere; eta presoek senideei elkartasuna adierazi zieten. Horrekin batera, presoekiko konpromisoari eutsi beharra dagoela ere gogorarazi zieten gizarteari.

Fiskalak eskatu du kultur elkarten bulegoak ere administrazio judizialpean jartzea

Astelehenean izan ziren *herriko tabernak* eta kultura elkarteak ordezkatzeko dituzten hemezortzi abokatuak Auzitegi Nazionalean. Tartean, Arrasateko Arrano elkartearen eta Irati tabernaren ordezkariak ere izan ziren Garzon epailearen aurrean deklaratzeko. Eta guztiak ere ezustea izan zuten Madrilgo epaitegian. Izan ere, orain arte ez bezala, oraingoan, Auzitegi Nazionaleko fiskal Enrike Molinak ez du eskatu kultura elkarten bulegoak ixtea, baizik eta, *herriko tabernak* moduan, bulego horiek ere administrazio judizialpean ipintzea.

Gogora dezagun iraileen tabernak ez, baina bestelako lan leku, bulego edo kultura elkarteak ixtea eskatu zuela fiskalak, enpresa bat eta bakarra den argudiopean. Baina gero, batasun hori ez da agertu fiskalaren eskaeretan.

ELKARRIZKETA

INDIRA RAONA/MISIOLARIA

“Gehiago kontsumituz gero, pertsona hobe zarela transmititzen dute”

UBANE MADERA

Indira Raona indiarra da, Bengala estatukoa. Hamabi urtez Venezuelan izan da misiolari lanak egiten. Urtebete dela, berriz, Zaragozan dago. Hiru urte egingo ditu han, eta, tartean, Arrasaten ere izan da, Harremanek gonbidatuta.

Nolatan zaude Zaragozan?

Misiolari lana egitera etorri naiz, eta, bide batez, sentsibilizazio lanak egitera, bereziki, Hirugarren Munduarekin lotutako arazo berri ematera eta gure esperientziak elkar trukatzera.

Oro har, zer da egin dezakegun hobereana Hirugarren Munduari laguntzeko?

Solidario izan; ez bakarrik dirua edo gauzak ematen, baizik eta nork bere bizimodua aztertzen. Adibidez, herri aberatsek larregi kontsumitzen dute, eta, era berean, kontsumismoa balio garrantzitsuenetakoa bilakatu da. Zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta pertsona hobe zarela transmititzen dute telebistek, irratiek eta, oro har, komunikabideek (globalizazioaren ideia). Kontua da mezu bera transmititzen dietela herri pobreei, dirurik ez dutenei. Eta izpiritualki eta moraliki min handia egiten die. Venezuelan, esaterako, jatekorik ere ez duten txaboletan gurago dute telebista erostea... Bestela, pertsona moduan txarto sentitzen dira.

Uste duzu arazo hori noizbait konponduko dela?

Nor bere buruarekin hasi behar da; eta, oro har, gizarteak egin beharreko lana da. Adibidez, Hirugarren Munduan egindako produktuak erosten ditugu mer-



UBANE MADERA

keagoak direlako; baina merkeagoak dira hangoak esplotatu egin dituztelako, ia ezer ordaindu barik... Multinazionalak egiten dutena, adibidez.

Hortaz, elkartzasuna erakustera etorri zara?

Ez, erlijioa ere erakusten dut. Eta Arizmendiko umeei Indiaren berri eman diet: kultura eta erlijio askotariko herria dela eta guz-

tiok elkarrekin bizi behar dugula, elkarrekiko errespetuarekin eta tolerantziarekin. Kasta sistemaren berri ere eman diet, eta sistema horren kalteak nabarmendu, esplozazio sistema delako. Baina baita ere esan diet izpiritueltasun handia dagoela; guztiok sinesten dugu Jainkoarengan. Mendealdeko asko joan dira Jainkoaren, bakearen eta zorientasunaren bila.

Gasarekin lotutako iruzurrak egiten ari dira Arrasaten

UBANE MADERA

Udaltzaingoan salaketa jaso zuten joan den egubakoitzean, hilaren 8an. Gasaren iruzurrarekin lotutako salaketa zen. Hori dela eta, herritarrei abisatu gura die datozen egunotan kontuz ibiltzeko.

Datozen egunotan etxeko gas-instalazioa aztertzeraz datorren norbaiti atea zabalduz gero, kontuz ibili. Dagoeneko Udaltzaingoan jaso dute horrekin lotutako salaketa bat, iruzurragatik.

Jakinarazi digutenez, egunotan Bilboko enpresa bat etxe etxe ari da, gas-instalazioak direla eta. Sergas da enpresa horren izena, eta Udaltzaingoaren esanetan, gas-instalazioen mantentze-lanak egiteko eskaintza egiten die herritarrei. Sergas enpresak eskaintako kontratua sinatuz gero, batez beste 70 bat euro ordaindu behar dira.

Horixe gertatu zitzaion arrasatear bati joan den egubakoitzean. Hark uste zuen gas-instalazioen mantentze-lan horiek eta legeak derrigortzen duen bost urtean behingo azterketa gauza bera direla. Baina ez da horrela.

Izan ere, 15 kW baino gutxiago gas-instalazioetan (etxebizitzetan, adibidez) lege ez da derrigorrezkoa mantentze-lanak egitea. Esan dugun moduan, derrigorrez egin behar den azterketa bakarra da bost urtean behingoa. Baina askotan, jendea nahastu egiten da, eta hori aprobetxatzen dute iruzurtiek.

BAIMEN BARIK

Eta hori gutxi izango balitz, egubakoitzeko salaketa jaso eta gero, Udaltzaingoa Bilboko Sergas enpresaren aurrekariak egiaztatzen ibili da. Eta, batutako datuen arabera, enpresa hori ez dago erregistratuta mantentze-lanak egiten dituen enpresa moduan, ezta instalazio lanak egiten dituen enpresa moduan ere. Hortaz, litekeena da baimenik ez izatea.

Horrela, bada, Arrasateko Udaltzaingoa kontuz ibiltzeko mezu zabaldu gura du herritarren artean. Bereziki azpimarratu gura du enpresa mota horien guztien aurrekariak egiaztatzeko; batez ere, ez sinatzeko inolako kontraturik. Eta gogorarazi gura du gas-instalazioen azterketa baimena duen enpresa instalatzaile batek bakarrik egin dezakeela.



IKER BARANDIARAN



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



BEHOBIA-DONOSTIAN ARRASATEAR AZKARRENEI SARIA

Oramendi kirol dendak aurten ere Behobia-Donostia lasterketan parte hartu duten arrasatear azkarrenak saritu ditu. Aurten, gizonz-koetan, arrasatear azkarrena Javier Mentxaka izan zen (1:09:54). Lasterkari beterrano horrek sasoi betean dagoela erakutsi zuen. Emakumeetan, berriz, Marifran Alonso izan zen arrasatear azkarrena: 1:31:16 egin zuen Marifran Alonsok. Zorionak, bioi!



GABONETAKO JAIOTZA IPINTZEKO DIRUA BATZEN

az bezala, aurten ere jaiotza ipiniko dute Arrasaten Eguberrietan. Oraingo honetan, gainera, San Juan parrokia ere laguntzaile izango du San Andreskoak (iazko jaiotzagileak). Eta, ekimen horretarako dirua batzeko, irudiotan duzuen moduko postalak atera dituzte; iazko jaiotza-aren irudiekin egindakoak, hain zuzen ere. Datorren domekatik aurrera izango dira salgai San Andres elizan, sei euroren truke. Gero, jaiotza hori non ipiniko duten ere zehaztu beharko dute. Iaz, Santa Barbarako parkean ipini zuten, baina kalte ugari izan zituen; hori dela eta, aurten, beste lekuren baten jartzea aztertzen ari dira.



SAN VIATORO KO NESKA-MUTIKOAK KAZETARITZA LANTZEN

Arizmendiko San Viator Txiki ikastetxeko neska-mutikoak gurean izan dira oraingo astean. Komunikazioa ari dira lantzen, eta teoria ikasi eta gero, gurerara etorri ziren, komunikabideak bertatik bertara ikustera. Txangoari etekin ederra atera zioten, Goiena Telebista, Arrasate Irratia eta ARRASATE PRESS bisitatzeko aukera izan zuten-eta. Nork daki, agian, neska-mutiko horietako bat etorkizunean punta-puntako kazetaria izan liteke.



ARRASATEKIROLPROIEKTUA



Gaztetxoek ondo baino hobeto pasatu zuten igerilekuan egindako igeriketa jolasekin.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

ZER DA ARRASATE KIROL PROIEKTUA?

Helburua: gaztetxoek kirol jarduera heziketa tresna bezala sustatzea

Heziketa tresna izateaz gain, kirola egitea ohitura bilakatu, etorkizunean ere egiteko

XABIER URZELAI / AKP

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko jardueren urteko programak egin, onartu eta betetzea. Ikastetxe bakoitzaren eginkizuna da eskola kirola antolatu eta abian jartzea. Arrasaten lan hori Arrasate Kirol Proiektuak egiten du.

Arrasaten eskola kirolak ezaguri berezi bat du: Arrasateko ikastetxe guztiak bateratu egin dira eskola kirol programa bera aurrera eramateko. Arizmendi Ikastolak, La Merced Ikastetxeak, Arrasate Herri Eskolak eta Institutuak ARRASATE KIROL PROIEKTUA (AKP) deritzon eskola kirola antolatzen hartzen dute parte. Aipamen berezia merezi du Aramaioko San Martin Herri Eskolak, bi herrien gertutasunagatik gure proiektu barnean sartuta dago eta.

AKPk hiru koordinatzaile eta 23 monitore ditu 6 eta 14 urte bitarteko ikasleekin eguneroko lana egiten, eta Foru Aldundiarekin,

Udalarekin (Aukea, Hezkuntza Saila), Arrasate Kirol Elkartearekin eta Kirol Federazioekin harreman zuzenean daude, 700 neska-mutilek eskola kirolean parte har dezaten.

1997ko urtarriletik aurrera berezko izaera juridikoa du. Bere Batzar Nagusian Arrasateko ikastetxe guztiak eta Aramaioko San Martin Herri Eskola daude, baita herri bietako udalen ordezkariak ere.

AKP-REN BIGARREN MENDI IRTEERA

Oraingo domekan, azaroak 17, AKPk ikasturteko bigarren mendi irteera antolatu du. Irteera Arantzazu-Urbieta-Artzanburu-Arantzazu izango da. Autobusa goizeko zortzi eta erdietan irten go da, Arrasateko Garibai geltokitik, eta itzulera ordua 13:30ak-14:00ak aldera izango da. Eguraldi txarra egiten badu, baliteke ibilbidea aldatzea.

Irteera horiek hilean behin izaten dira eta ikasleendako eta gurasoendako izaten dira. Arrasateko ikasleen artean badaude mendizaletasun handia duten

umeak, baita gurasoak ere, eta, beste irteera batzuetara bezala, 30-40 ikaslek parte hartzea espero dute AKPk koordinatzaileek.

LEHENENGO EKINTZA: IGERIKETA JOLASAK

AKPk gaztetxoek (6-8 urte) asteburuko ekintzei ekin zieten joan den azaroaren 9an. Ume ugari hurreratu ziren Musakola kiroldegiko igerilekura jolas egitera. Bertan, puzgarriekin eta hainbat koltxonetarekin jolasteko aukera izan zuten, monitoreen begiradapean, jakina.

Horrez gain, joan den asteburuan, Arrasate Kirol Proiektuko infantil mailako neska-mutikoen saskibaloiko eta futboleko txapelketak hasi zituzten. Oraingo asteburuan, hortaz, txapelketako bigarren jardunaldia izango da jokoan.

Azaroak azken astean, AKPk azaroari dagokion hilabetekaria kaleratu du. Bertan, besteak beste, gaztetxoek partiduen berri izango duzue, emaitza eta guzti. Horrez gain, hainbat argazki ere izango dira ikusgai AKPren hilabetekarian.

Arku Tiroketa Txapelketa, bihar, Musakolako kiroldegian

X.U.

Joan den astean hasi zen Eibar kiroldegian Arkularien VI. Arku Tiroketa Txapelketa, eta oraingo asteburuan, Arrasaten jokatu da bigarren jardunaldia. Bihar, Musakolan, arku tiroketa ikusgai.

Joan den astean hasi zen Eibar kiroldegian Arkularien VI. Arku Tiroketa Txapelketa. Arrasateko taldeak lau lagun izan zituen: Juan Mari Errasti, Fernando Casatorre, Luis Mari Astigarraga eta Mikel Lasa. Txapelketan bi modalitate izan zituen: polea arku eta arku kurbatua. Juan Mari Errasti eta Fernando Casatorre polea arkuarekin aritu ziren eta Luis Mari Astigarraga eta Mikel Lasa, berriz, arku kurbatuarekin. Bi modalitateotako finaletan Arrasateko ordezkariak izan zituen: Juan Mari Errastik merezitako bigarren postua esku-

ratu zuen polea arkuarekin; Fernando Casatorre bikain ibili zen, eta arku kurbatuarekin sekulako abilezia erakutsita zuen: lehen izan zen, txapelduna. Emaitza horiei esker, Arrasateko arkulariak senior mailako sailkapenean goiko postuetan daude.

BIHAR, ARRASATEN

Ikuskizun horretaz gozatu gura duenak aukera paregabea izango du bihar; izan ere, Arku Txapelketako bigarren jardunaldia Arrasaten jokatu da.

Txapelketa Musakolako kiroldegian izango da, 17:00etan, eta Arrasateko parte-hartzaileak animatzeaz gain, kirol ikusgarri horrekin gozatzeko aukera ere izango da.

Gutxitan izaten dugu kirol hori ikusteko aukera. Arrasateko taldeak herriko jaietan hainbat ikuskizun antolatzen ditu, eta bihar, zapatua, beste aukera bat izango da.

FOTOKIROLA



Mondra bigarrena da, 1-5 irabazi eta gero

Josu Zubiriaren mutilak 1-5 nagusitu ziren zailtasun handirik jarri ez zuen Ordiziaren kontra. Arrasatearrak hasieratik erakutsi zuten hobeak zirela, eta emaitza da horren erakusle. Atsedenean arrasatearrak 1-3 ziren aurretik. Bigarren zatian alde hori handitu baino ez zen egin. Modrako goleak Ander Bereziartua, Iker López eta Jon Muruamendiaraz izan ziren; Jonek hiru gol egin zituen. Oraingo asteburuan, Aurrera Ondarroa izango du kontrario Mondrak.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

SASKIBALOAIA

Kenci Arrasatek denboraldiko lehen partidua irabazi zuen zapatuan

Oraingo asteburuan Kalagorrira (Errioxa) joango dira arrasatearrak, denboraldiko bigarren garaipenaren bila

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek joan den asteburuan erdietsi zituen denboraldiko lehenengo puntuak. Aurkaria Nafarroako Antonio Erro y Eugi taldea izan zen, eta arrasatearrek emaitza ezin hobea lortu zuten (94-72). Oraingo asteburuan Errioxa aldera joango dira, Kalagorrira, bigarren garaipenaren bila.

Zapatuan, denboraldian lehenengo aldiz, Kenci Arrasatek kantuan erakutsitako jokoari etekina atera zion. Orain arte jokaturako partiduetan arrasatearrek maila ona erakutsi dute, baina puntuei dagokienez etxeako esku hutsik ziren. Emaitza ez zatorren bat taldearen jokoarekin, baina bost partidu segidan galdu eta gero, zerbait egin beharra zegoen.


Partiduen aurretik argi zegoen talde nafarra ez zela aurkari batere makala izango, baina kantuan ez zuten aurreko batzuetan jokatu duten moduan jokatu. Edozelan ere, partiduko emaitzak bestelakorik erakusten badu ere, partidua irabaztea ez zen

gauza batere erraza izan, eta Iker Zubiriaren mutilek gogotik egin behar izan zuten lan nafarrei gailentzeko. Nafarrak partidurik galdu barik iritsi ziren Arrasatera, eta hasieran gogor ibili ziren. Baina etxeokoen joko azkarrari esker, arrasatearrak aurreratu ziren markagailuan.

Bigarren zatian nafarrek zonakako defentsak bakarkako defentsarekin tartekatuta zuten, eta partiduen erritmoa aldatzen saiatu ziren. Horrelako joko aldaketek aurreko partiduetan min handia egin izan diote Arrasateko taldeari, baina zapatuan kontuak bestelakoak ziren. Antonio Erro y Eugi taldekoek egiten zutena eginda ere, ezin zuten etxeokoen. Arrasatearrek azkar jokatu zuten, akatsik egin barik. Aurreko batzuetan faltan izandakoa soberan izan zuten.

LIGA TXAPELKETA PAREKATUA

Liga Txapelketan taldeak zein parekatuta dauden ikusteko, ondoko datua oso esanguratsua da: ordura arte partidurik galdu barik zegoen taldeak puntu barik zegoen taldearen kontra 22 punturen aldeetatik galdu zuen.



Arrasateko taldeak denboraldiko lehenengo puntuak eskuratu zituen joan den asteko partiduan.

ARRASATE PRESS

ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldea erraz gailendu zitzaion Durangori (37-7)

Garagartzako zelaia ez zegoen batere ondo, baina arrasatearrek, talde-lanari esker, erraz irabazi zuten



ARRASATE PRESS

XABIER URZELAI

Arrasateko kirol taldeetatik, errugbikoek hasi dute ondoen Liga Txapelketa. Dagoeneko sei jardunaldi jokatu dituzte eta mondragoetarrek oraindik ez dute partidu bat bera ere galdu. Joan den zapatuan, Durango taldea izan zuten aurrez aurre, eta etxeokoen erraz nagusitu ziren.

Zapatu arratsaldean bi partidu izan ziren ikusgai Garagartzako zelaian: arratsaldeko hiruretan hasita, Arrasate eta Durango izan ziren aurrez aurre, eta horren ondoren, beteranoen partidua jokatu zen. Arratsaldeko protagonista eguraldi txarra izan zen. Eurria eta haizea, eta zelaia oso txarto: lokatza leku guztietan.

Zelaia zelan zegoen ikusita, argi zegoen kontaktu handiko partidua izango zela, joko zakarrekoa. Arrasateko jokalariek

ere argi zeukaten hori, eta talde-lanari esker nagusitu ziren.

HERENSUGEAK VS ARCHIVALD

Seniorren partiduen ondoren, beteranoen txanda iritsi zen. Arrasateko Herensugeak taldeak Bordeleko Archivald taldearen bisita izan zuen. Partidua ez zen oso ikusgarria izan, baina bi taldeetako jokalariek oraindik sasoiari daudela erakutsi zuten: Azkenean, Archivald taldea nagusitu zen (5-10). Herensugeak talde beteranoak urtarrilean jokatuko du hurrengo lagun arteko partidua, Logroñoren kontra.

Oraingo asteburuan, Arrasatek kanpoan jokatuko du, Kakarraldoren kontra, domeka eguerdian. Bihar, zapatua, goizean, kadeteek eta gazte mailakoek Garagartzako zelaian jokatuko dute. Goizeko hamarretan, kadeteek jokatuko dute, eta gero, goizeko hamaikak eta laurdenetan, gazte mailakoak izango dira.

Patxi Gorosabelen mutilek sei partidu irabazi dituzte segidan, eta saillapenean lehenak dira.



Kanpoko partiduak ikustera joatea izango da taldearen helburuetako bat.

FUTBOLA

Arrasate Txuri Urdin Taldea aurkeztuko dute abenduan

Realeko jarraitzaile talde berrian izena eman gura duenak Monte tabernan du aukera

XABIER URZELAI

Realá inoiz baino hobeto ari da, eta horrek zaleak egiten laguntzen du. Arrasate Txuri Urdin Taldea sortzeko asmoa, ordea, joan den urtekoa da, taldea ia bigarren mailan zegoenean. Taldea legeztatuta dago, eta orain, herritarren parte-hartzea falta da.

Arrasate Txuri Urdin taldearen aurkezpena abenduan izango da, baina ordurako jende asko animatzea espero dute Realeko jarraitzaile talde hori aurrera eramane dutenek. Presidente lane-

tan Arantxa Oruna izango da, haren ideia izan zen-eta taldea sortzea. Hori, baina, orain dela sei hilabete izan zen, Realaren egoera bestelakoa zenean. Orduetik hona, gauzak asko aldatu dira, eta Realeko jarraitzaileen talde hori ofiziala da dagoeneko.

"REALZALEAK ANIMA DAITEZELA"

Horixe zioen Juan Carlos Dávila taldeko sortzaileetako batek. "Oraingoan, 25 lagun gara, baina ehun lagun inguru izatea izango litzateke idealena. Taldean izena eman gura duenak Monte tabernan joan baino ez du. 16 urte baino gehiago daukatenean 20 euro

ordaindu beharko dituzte, eta 16 urtetik beherakoek, 10 euro.

HELBURUETAKO BAT, KANPORA JOATEA

Taldeak duen helburuetako bat da Real kanpoko partiduetara animatzera joatea. Aurten, Estatuko zelaiekin konformatu beharko dira, baina datorren urterako Europa dute helburu: "Zergatik ez? Azken urteotan sufritu baino ez dugu egin, eta taldea zelan dagoen ikusita, aurten posible dela uste dugu". Taldearen aurkezpena abendu hasieran izango da, baina oraindik ez dago egun zehatzik, futbol jokalarien agendaren mende daude-eta.

FOTOKIROLA



Eskubaloian, asteburu beltza

Arrasateko eskubaloiko bi taldeak ez dira fin ibili asteburuan. AGR Arrasatek 15-16 galdu zuen Usurbilen kontra. Epaila ere ez zen batere ondo ibili, baina partidua taldeak erasoan eginiko hutsegiteen ondorioz galdu zuen AGRk. Arrasateko bigarren taldeak ere ez zuen egun onik izan; izan ere, Pitxi Herreroen mutilek 19-31 galdu zuten Leitzaran taldearen kontra. Bigarren zatian arrasatearrak ez ziren batere fin ibili. /X.U.

KARATEA

Gipuzkoako Karate Txapelketan Arrasateko hiru karateka Gipuzkoako txapelkun

Joan den asteburuan, Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu zen, eta kadete eta junior mailetan Arrasateko zazpi karateka izan ziren.

Junior mailan Iban Galán eta Goizeder Caballero izan ziren Arrasate ordezkak. Iban Galán lehena izan zen 60 kilo azpitik; Gipuzkoako txapelketa, hortaz, Goizeder Caballero ere ondo ibili zen, bere pisuan hirugarren postua eskuratu zuen-eta.

Kadete mailan Jon Rodríguez, Denis Soriano, Oliver Sánchez eta Carlos Sánchez aritu ziren. Carlos Sánchez ondo ibili zen, eta lehenengo postuan amaitu zuen, Gipuzkoako txapelkun. Jon Rodríguez ere Gipuzkoako txapelkun bilakatu zen 70 kilo azpitik mailan. Denis Sorianok ere lan polita egin zuen 60 kilo azpitik mailan, eta bigarrena izan zen. Oliver Sánchez hirugarrena izan zen eta Miriam Santa Teresa ere ondo baino hobeto ibili zen, baina ezin izan zituzten lehenengo postuak eskuratu.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Rayo Aldeano	9-3
Abocajarro - Goma-2	3-5
Lasagabaster - Maldifa's	4-0
Iriztu Taberna - Betraye	1-5
NS/NC - Makanaki	8-1
You Know - AL Kaeda	6-6
Etixerat - Komando Alpargat	7-2

B MULTZOA

El Ekipo A - Dribling.es.vg	0-13
Fraguel Gol - Saloga	12-2
Estu Ta Larri - Billy & The Cowboys	4-5
Whiskeria - Koka Juniors	4-11
Fuxxion - Bikain Akademia	7-3
Aurrera Bolie - AC Surcos	---
AT Celaya - Etxina!	7-8

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Saukelu Scream	5	3
2. Betraye	5	3
3. Etixerat	4	3
4. NS/NC	4	3
5. Makanaki	4	3
6. Al Kaeda	3	3
7. You Know!	3	3
8. Lasagabaster	3	3
9. Iriztu Taberna	3	3
10. Goma-2	3	3
11. Rayo Aldeano	2	3
12. Maldifa's	2	3
13. Komando Alpargat	1	3
14. Abocajarro	0	3

PARTIDUAK

AZAROAK 16, ZAPATUA. / EPAILEAK

08:50: Fraguel Gol - Koka Juniors.	A. Bolie
10:00: Aurrera Bolie - AT Celaya.	K. Juniors
11:00: Rayo Aldeano - Maldifa's.	AT Celaya
12:00: Etxina! - Fuxxion.	Maldifa's
13:00: Estu Ta Larri - Bikain Akad.	Fuxxion
14:00: NS/NC - K. Alpargat.	Bikain Akad
15:00: Etixerat - You Know!.	NS/NC
16:00: Saukelu Scream - Goma2.	You Know
17:00: Abocajarro - Betraye.	Goma2
18:00: Dribling - Billy & The...	Betraye
19:00: AC Surcos - Whiskeria.	Billy & The...

B MULTZOA

	P	J
1. Dribling.es.vg	4	2
2. Fraguel Gol	4	2
3. Koka Juniors	4	2
4. Aurrera Bolie	4	2
5. AC Surcos	3	2
6. Fuxxion	2	2
7. El Ekipo A	2	2
8. A.T Celaya	2	2
9. Etxina!	2	2
10. Saloga	1	2
11. Billy & The Cowboys	0	2
12. Bikain Akademia	0	2
13. Whiskeria	0	2
14. Estu Ta Larri	0	2

AZAROAK 17, DOMEKA

10:50: Iriztu Tab - Al Kaeda.	Makanaki
12:00: Lasagabaster - Mkanaki.	Al Kaeda
13:00: El Ekipo A - Saloga.	Lasagabaster


ANTOLATZAILERRE, KALE!

ARGI BARIK GERATU, ETA PARTIDUA BERTAN BEHERA

Zapatu arratsaldean jokatu behar zen partidu bat bertan behera geratu zen. Arratsaldeko zazpietan, Aurrera Bolie eta AC Surcos taldeek indarrak neurtu behar zituzten, baina partidua ezin izan zuten jokatu. Antolakuntzakoei ahaztu egin zitzaizkien argiak pizteko beharrezkoa den giltza eramatea, eta giltzarik ez zegoenez, ezin partidurik jokatu. Oraingoan, antolakuntzari tokatzen zaio barkamenak eskatzea, eta hori egiteko ez dute inongo erreparririk izan. Zaldibarko antolatzaileen esanetan, barkamena, bi taldeetako jokalariei eta partidua ikusteko asmoarekin joan zirenei.

BESTE JARDUNALDI ISTILUTSU BAT

Rayo Aldeano eta Saukelu Scream taldeen arteko partiduan istiluak izan ziren. Rayo Aldeanoko jokalarik batzuek epaila behin eta berriro iraindu zuten. Horren ondorioz, Rayo Aldeanoko jokalarik batek bi partiduko zigorra bete beharko du, eta beste jokalarik batek hiru partiduko. Horrez gain, Rayo Aldeano taldeak fidantza galduko du. Epaila partidua bertan behera utzi eta alde egin zuen; haren taldeak ere fidantza galduko du.



「Ormazabal etxe
hornikuntzarako
proposamen integrala
duzu.

ETXE GIRO ONAK
BIZI KALITATE
HOBEA DAKAR」

Ormazabal 

ZUZENeko MUSIKA/ Ingalaterrako Lets Zep eta Arrasateko Jukebox taldeek kontzertua emango dute

Led Zeppelin-en oroimen bizi-bizia gogora ekarriko digu Lets Zep musika taldeak

IKER BARANDIARAN

Azaroaren 20an, eguaztenean, oso kontzertu berezia izango da Amaia Udal Antzokiko hall-ean, 20:30ean. Arrasateko Jukebox taldea eta Ingalaterratik etorritako Lets Zep musika taldeak arituko dira. Azken horrek Led Zeppelin taldea ekarriko du gogora.

Lets Zep taldea talentu eta eskarmentu handiko musikari ingelesek sortu zuten. Are gehiago, Led Zeppelin taldearen jarraitzaile sutsuak dira, eta emanaldi osoa iraganeko talde esanguratsu haren abestietan oinarritzen dute.

IBILBIDE HANDIKO MUSIKARIAK

Lets Zep osatzen duten musikariak talde askotan ibilitakoak dira: Billy Kilke abeslariak Ozzy Osbourne eta Roger Daltrey musikari famatuekin birak egin izan ditu; Chris Cawte gitarrista musikari profesional oso ezaguna da eta, besteak beste, Rod Stewart-ekin, Ronnie Wood-ekin eta Doctor Feelgood-ekin birak egin izan ditu; Simon Jeffrey bateria jotzaileak The Bernie Torme Band taldearekin ere jotzen du; eta, azkenik, Lets Zep-en emanaldietan tarteka baxua eta teklatura jotzen dituen Steve Turnerrek Jon Sloman, Tempole Tudor eta Kings X taldeetan jo izan du. Lets Zep ez da Ingalaterrako pubetan bertsoak jotzen dituen talde soila; hori baino askoz gehiago da Lets

Lets Zep eskarmentu handiko musikariak osatzen dute, eta Led Zeppelin-en zaleak txundituko dituzte

Lets Zep-ekin batera, klasikoen bertsioak jotzen dituen Arrasateko Jukebox taldea ere izango da

Zep. Ia bi orduko emanaldiak egingen dituzte, eta Led Zeppelin-en kantuen aukeraketa aproposa egingen dute. Robert Plant eta Jimmi Page ere Lets Zep-en emanaldi baten ikusle izan dira, eta horien eskaintza oso begi onez ikusi zuten. Lets Zep Euskal Herrira datorren laugarren aldia da.

Lets Zep-ekin batera, Arrasateko Jukebox taldea arituko da. Arrasateko eta Soraluzeko musikariz osatutako talde horrek rock-and-rollaren hainbat klasikoren bertsioak jotzen ditu: The Who, Rolling Stones, UFO, The Kinks, Sonics, Led Zeppelin, eta beste askoren bertsioak.



Argazkian ageri diren Lets Zep-eko partaideek Led Zeppelin-ekoen antza dute.



Goikoibaluko talde guztien kontzertua

Goikobalu Abesbatzak kontzertu berezia emango du gaur, egubakoitza, Santa Zeziliaren omenez. 19:30ean hasiko da emanaldia, Amaia Udal Antzokian, eta Goikobaluko hiru taldeak arituko dira.

Kontzertuan Goikobalu Txiki, Goikobalu Gazte eta Goikobalu (nagusiak) taldeak bakarka arituko dira, baina hainbat kantu guztiek batera abestuko dituzte, Arrasate Musikaleko perkusio taldearen laguntzarekin.

Gaurko emanaldian entzungo dituzuen kantuen artean honako hauek daude: *Arri arri, Cavallet, Calypso, Let it be, Legorik lego, Urrundik, Moon river, My heart will go on, Bridge over troubled water* eta *African Alleluia*, besteak beste. Azkeneko bi asteotan abeslariak gogor entseatzen ibili dira. //B.

LABUR

Arrasate Musikalen kontzertua eta kalejira

Santa Zezilia Eguna dela eta, beste musika elkarte batzuk bezalaxe Arrasate Musikalek ere hainbat ekitaldi antolatu ditu. Hasteko, azaroaren 20an, eguaztenean, Arrasate Musikaleko partaideek kontzertua eskainiko dute, egoitzan bertan, 19:00etan. Arrasate Musikaleko ikasle ugari parte hartuko dute eguazteneko musika emanaldian. Sarrera doan izango da eta edonor joan ahal izango da emanaldia ikustera.

TXISTULARIAK ETA BANDAKOAK

Horrez gain, musikariaren patroia Santa Zeziliaren ospakizunekin jarraituz, azaroaren 22an ere, egubakoitzean, izango da zer entzun eta zer ikusi. 20:00etan, Arrasate Musikaleko txistulariek eta bandak kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena, Santa Zezilia Eguna dela gorai-patzeko.

Aipatu beharra dago lehenengo urtea dela Arrasate Musikaleko banda eta txistulariak batera irteten direla. Ziur arrasatearrek oso ondo hartuko dituztela. Arrasate Musikaleko txistulari bandaren zuzendaria Juan Karlos Larreategi da, eta Arrasate Musikaleko bandaren zuzendaria, behin-behingoan, Jose Ramon Elkoro da.

Literatura Solasaldiak martxa onean doaz

Arrasateko liburutegiak Arrasateko Emakumeen Kontseiluaren laguntzarekin antolatu dituen Literatura Solasaldiek aurrera jarraitzen dute, martxa onean jarraitu ere.

Euskarazko saioretan dagoeneko Iban Zalduaren *Gezurrrak, gezurrrak, gezurrrak* liburuaren eta Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* liburuaren gaineko irakurketak egin dituzte. Gaztelaniazko saioretan, bestalde, Natalia Ginzburg-en *El camino que va a la ciudad* eta Franz Kafkaren *La metamorfosis* aztertu dituzte. Euskarazko saioa Itziar Zubizarretak gidatzen du eta gaztelaniazkoa, berriz, Ana Arregik. Literatura Solasaldiok hilean behin egingen dituzte, Monterronen.

Literatura Solasaldien abenduko hitzorduei dago kienez, honako hauek dituzte: abenduaren 9an, Josu Landaren *Odol bildua*-ren gaineko irakurketak egingo dituzte, euskaraz, eta abenduaren 12an, Virginia Woolf-en *Orlando* liburuaren gainekoak, gaztelaraz.

E, TXO!

GUREGAIK / INTERPRETAZIOA KAMERA AURREAN

Kamera aurrean lan egin gura duzu? Baduzu ikasteko aukera!

IKER BARANDIARAN

Geroago eta gazte gehiago ikusten ditugu telebistetako kamera aurrean lanean. Eta, agian, horrelako lan bat egitea ametsa da batzuetarako. Pausokak horretarako ikastaroa prestatu berri du.


Pausoka produkzio-etxeak kamera aurreko interpretaziorako ikastaroa antolatu du. 2002ko azaroaren 18tik abenduaren 20ra bitartean, gazteak telebistan lan egiteko prestatuko dituzte.

TELEBISTA AURREAN, MODU NATUREALEAN Ikastaroaren helburua da aktorea kamera aurreko antzezpena egokitzea. Alor hori euskaraz indartzeko ahalegina ere egin

Azaroaren 18tik abenduaren 20ra bitartean, aktore ezagunek Donostian irakatsiko dute

dute. Azken baten, Pausokak, batez ere, ETBrako egiten du lan.

Pausokak Donostian duen eraikinean (Mundaiz pasealekua 4) egingo duten ikastaroan honako ikasgaiak izango dituzte: dramatikoaren errealizazioa; kamera aurrean mugimendu, ahoskera, hizkera eta dramatizazioa modu



IKER BARANDIARAN

Askorentzat, bat-batean, kamera aurrean berba egitea ez da erosoa izaten.

naturealean egitea; eta kamera aurrean egin beharrekoen teoria eta praktika. Irakasleak aktore

ezagunak izango dira. Informazioa: 943 29 71 11 telefonoan edo eskola@pausoka.com helbidean.

LOTSABARIK / Mireia Puerto

“Ameriketara pozik bizi izango nintzateke”

IKER BARANDIARAN

Mireia oso lanpetuta dabil ikasketekin eta saskibaloiarekin. Zaletasun asko ditu, eta, zelanbait, dantzatzeko, antzerkia egiteko eta lagunekin irteteko denbora aurkitzen du. Baita gurekin egoteko ere.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Ile apaindegi baten lan egin gura nuen; lagunei orrazkera bereziak egiten nizkien, baita neure buruari ere. Baina dagoneko iritzia aldatu dut: matematika dut oso gustuko, baita ingelese ere; ikusi behar...

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Baliteke irakasle lanetan ibiltzea, eta ez dakit hemen bizi izango nintzatekeen. Ameriketara bizi izatera gustura joango nintzateke. Espero dut bikotearekin egotea eta ume bat edukitzea.

• Zein da, zure iritziz, adin ideiala?

Hamasei-hamazazpi urte, parranda egiteko askatasun handiagoa dagoelako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta familiari. • Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan, ikasketak ondo ateratzeko arduratzen nau.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende askoren aurrean hanka sartzeak.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Besteei laguntzen ahalegintzen naiz; eta, bestalde, oso burugorria naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak, handiak direlako eta gehien nabarmentzen direlako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Ea polita den edo ez.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai, pixka bat bai. Norbaitek herrian bikotekidea aurkitzen badu, jendeak oso azkar izaten du horren berri, eta atzera egitera garamatza horrek.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko hirugarren maila • ZALETASUNAK: Dantza egitea, musika entzutea eta lagunekin irtetea
LIBURU BAT: 'Alejandra' • FILM BAT: 'Moulin Rouge' • MUSIKA TALDEA: Alex Ubago • KIROL TALDEA: Eskoriatzako saskibaloitza



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu-enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfobrak
Gortinak, mahai eta aukiak



BEHEKODENDATIK

Alberto García Ripa

AGR ERREFORMA ETA DEKORAZIÑOKUE

XABIER URZELAI

Albertok Eskola Profesionalien ikesi euen, eta leku askuen egin dau lan: Fagorren, arotz lanetan, mahatsa batzen... 1989xen, negozio propiue jarri euen. Lehenengo urteik gogorrak izen zien Albertondako: asteburuetan tabernan, astien ziher lan eta lan... Baiñe oin, familixie daukonez, lanari mugie jarri dutzo. Biherrezkue zan-eta.

Amets bat?

Neuretako denpora librie eukitue.

Eta amets txar bat?

Beti pentsau izen dot kalien bukaketie gogorra izen biher dala.

Egin dozun azken biajje?

Galiziara, udan.

Txartel horixe, zeñei?

Auto gidari batzuei, eta bittartekari lanetan ibiltten dienei, bestien konture aberasten die-eta.

Eta gorrixie?

Mahai baten jarri eta akordixue egitteko kapazak ez dienei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Zientzia fikziñozkuek gustetan jat / Nahikue dauket kataloguek irakurten / Heavy musikie gustetan jat, baiñe danetik entzun neike.

Drogak legalizauko zittukie?

Droga bigunak bai.

Eta prostituziñue?

Be bai. Daguena ofizio zaharrena zela egon leike legalizau barik.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue, baiñe neurrixen.

Etxeko zapatillak ala zapat?

Etxeko zapatillak.


Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Gustetan jatena baiñe gehixago, gustetan ez jatena esango dutzut: jentiek daukon estresa.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Gauza asko hobetu leike; beste batzuen artien, trafikua arazue konponduko neuke.

Eta lehendakari izengo bazi-



X.U.

"Txartel horixe, bittartekari lanetan ibiltten dienei, bestien konture aberasten die-eta"

tze?

Mundu danakin berba egitten ahalegindduko nitzake.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Jente asko ezaguketan dot, klase askotakuek, gaiñera.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Leonardo da Vinci, edo Julio Verne. Euren garairako aurreratu egitek zien, eta jentiek ez zittuen ulertu. Egun be badaguz holakuek.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?

Ez nitzake tranpetan ibilliko.

AGRkuek eskubaloizaliek zarie, ala?

Ez, kontue da Arrasateko

"Geure helburue da etxe bateko erreforma osue guk geuk egittie, azkarrague eta komoduague da-eta"

Eskubaloi Taldeko presidentie ezaguketan dotela, eta taldie patroziñetie eskaiñi eusten.

Erreformak egitten ditzuzue: arotz lanak, leihuek, atiek, armaixuek, alfonbrak, kortiñak... Ze ez dozue egitten?

Gauza asko egitten ditzugu, eta hori da geure helburue: etxe bateko erreforma dana geuk egittie. Gremio askotara jo biherrien, batera jo eta dana harek egin daixela. Horrek bentaja haundixek dauko. Ez dogu sukaldeko altzaririk egitten, baiñe hamendik gutxira horretan be hasiko gare.

Jentiek hona datorrenien badaki ze gure dauen?

Bai, gutxi gorabehera bai.

NIREBIDAIAHURA/ Rikardo Pérez

Costa Ricara / 2000ko udan

Rikardok argi eta garbi zeukan *putzua* gurutzatu gura zuela, Amerika aldera joan gura zuela; eta, horrez gain, Costa Rica ezagutzeko gogoa zeukan. Bidaia ez zuen bakarrik egin; koadrilako Jon Loiti ere Rikardorekin joan zen, eta hiru aste egin zituzten Costa Rican. Rikardo biologoa da, eta bidaiaren helburuetako bat zen dortokak erruten ikustea, bertatik bertara. Costa Ricara iritsi, San Josen lehenengo gaua igaro, auto bat errentan hartu, eta kosta aldera joan ziren bigarren egunean. Bigarren egunerako Rikardoren helburuetako bat beteta zegoen: "Dortokak erruten ikustea ez da batere erraza. Baimenak eskuratu eta gero, hondartzara joan ginen. Arrasto mordoa zegoen, horietako asko jendeak egindakoak, baina azkenean lortu genuen gure helburua: dortoka bat aurkitu genuen, erruten, eta oso une hunkigarria izan zen; niretako bai, behintzat".

Helburu hori beteta etxera bueltatzeko moduan zegoela dio Rikardok, baina bigarren eguna baino ez zen, eta beste hemezortzi egun zeuden aurretik. Ezin izan zuten Costa Rica goitik behera ezagutu, baina ez ziren geldirik egon: "Edozein lekutara joateko San Jostik igaro behar da, eta sekulako itzuliak egin behar dira. Horrez gain, edozein arazo daukatenean, errepideak moztu dituzte lehenik eta behin; hortaz, hara eta hona ibiltzea ez da oso erraza izaten".

Hiriburua alde batera utzita, gainontzean lurralde oso lasaia dela dio Rikardok. Askok gustatu zitzaizen Costa Rica: barrualdea, kostaldea, Pazifikoko aldea, Karibe aldea, parke naturalak, Nicoya penintsula, sumendiak, ur-jauziak... Bestalde, beldur apur bat ere pasatu zuten Rikardok eta Jonk; izan ere, Arenal izeneko sumendian laba ikusteko aukera zegoen, baina leku arriskutsua zen hura. Are gehiago, aste batzuk geroago, gidari bi hil ziren han bertan; hortaz, ez zen txantxetako kontua. Inongo duda barik, Costa Ricara berriro itzuliko dela esan digu Rikardok.

XABIER URZELAI



Costa Rican oihanak eta hondartzak dira nagusi.

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



ARRASATE PRESS

Oso garrantzitsua da ikastea edo burua lanean edukitzea. Horra hor, esaterako, Uribarriko zaharren elkarteak.

Zahartzaroan ere ikasketak unibertsitatean egiteko aukera

IKER BARANDIARAN

Zahartzaroa ez da gaixotasunen edo dementzien sinonimo, batzuek hala uste badute ere. Zahartzaroan egon arren, inork ez du derrigorrez bizitza sedentariorik egin beharrik, ezta uneoro nekaturik egon beharrik. Horiek guztiak topikoak dira, baina jende askok sinetsi egiten ditu, eta oso garrantzitsua da erretiratuek eurek ez sinestea, eta horri aurka egitea.

Azken baten, ondo zainduta-ko zahartzaroak luzeago bizi izatea dakar; aurretik egin ezin izan dena egiteko une aproposa, hain zuzen ere. Eta, ustez, behintzat, gaur egun iraganean baino bizi-itzaropen handiagoa dago, gure artean bizi maila zeharo hobetu delako. Adituen arabera, bizi-itzaropen ertaina 76,9 urte da.

INOIZ EZ DA BERANDU IKASTEKO

Geroago eta gehiago dira 55 eta 80 urte artean unibertsitatean ikasketak egitera animatzen diren lagunak. Euskal Herriko

Unibertsitateak, esaterako, erretiratuei matrikula egiteko orduan beherapenak egiten dizkie. Beherapen horiek, kasu batzuetan, %50ekoak izan daitezke. Are gehiago, erretiratuen ikasketa plangintza horietan, azterketak beharrez, lantaldean egindako lanak eta gai konkretuen gaine-

Ez dago urrun joan beharrik

Erretiratu gehienek aisialdirako denbora dezente edukitzen dute, baina askori unibertsitateko ikasketak egitea larregi irudituko zaio. Ikastea edo ezagutza handiagoa izan gura baduzu, horra hor herrian bertan dagoen Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroa (EPA). Hainbat arlotako ikasgaiak ikasteko aukera ematen du EPAk.

ko mahai-inguruak eta eztabaidak nagusitzen dira. Kasu gehienetan, erretiratuek ikasketa horiek egin ondoren jasotzen duten agiriak ez du balio akademiko handirik. Dena dela, unibertsitatean matrikula egin gura dutenei ez diete aurretik heziketa berezirik egina edukitzea eskatzen.

Halako ikasketak egiteak dituen abantaila handienak, besteak beste, honako hauek dira: erretiratuaren motibazioa piztea eta beste ikasleekin euren ezagutzak eta kezak elkartrukatzeko aukera paregabea izatea.

Horrez gain, ikasten badabil-tza, erretiratuak intelektualki aktibo egoten dira, eta buruko ahalmenak bizi-bizirik. Era berean, ikasteak barne-ongizatea eta norberarenganako konfiantza ematen du. Ikastea depresioaren aurka egiteko ere oso onuragarria da, etxetik irten eta jendearekin elkartzen direlako. Are gehiago, askotan lagun gazteagoekin topo egiten dute, eta gazteekin ezagutza eta zaletasunen elkartruke oso interesgarria egiten dute.

LABUR

Abaroako erretiratuen elkarteak Iruñera eta Orikainera txangoa antolatu du

Abaroako erretiratuen elkarteak beste txango bat antolatu du azaroaren 21erako. Iruñera joango dira, eta han aisialdirako denbora izango dute. Gero, Ciudadela, Taconera eta Planetarioa bisitatu dituzte, eta Orikainen bazkalduko dute. Are gehiago, bazkariaren ondoren, dantzaldia izango dute eta parte hartzaileen artean opariak banatuko dituzte. Bi autobus joango dira.

Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteak Informatika ikastaroak antolatu ditu

Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzaren laguntzarekin, Informatika ikastaroak abian jarri ditu ibarreko erretiratuen elkarteetako ordezkariendako. Ekimen horren bitartez, azkenengo asteotan, Arrasateko lau zaharren elkarteetako ordezkari bana Windows ikasten dabil Bastida akademian.

ZAHARREN AHOTIK

Rosario Díez

ERRETIRATUA

Rosario Díez 1934an jaio zen, Haron. Neskame hasi, eta Arrasatera lanera etorri zen. Oso gustura bizi da Arrasaten.

Non jaio zinen?

Haron jaio nintzen, eta lau anai-arrebatatik bigarrena naiz. Oso txikiak ginenean aita hil zitzaigun, eta familia aurrera ateratzeko lan handia egin behar izan genuen. Txikitari, Haroko eskolan, kostata, Lehen Hezkuntza ikasi nuen. Oso gaztetxotan, Bilboko jauntxo batzuen etxean neskame lanean hasi nintzen, eta han lauzpabost urte pasatu nituen.

Noiz eta zelan etorri zinen Arrasatera?

Ahizpa bat Arrasateko Isasatzen etxean lanean zebilen, eta 1956an, harengana jo nuen. Arrasate asko gustatu zitzaidan. Urtebetez Isasatzen etxean lan egin nuen, eta gero, Cucharera-ra lanera jo nuen. Han bi urte egin nituen, 1959an, Esteban De La Torrerekin ezkondu nintzen arte.

Gerora ez zenuen etxetik kanpo lanik egin?



Ez, orduetik aurrera etxeko lanak egiteaz arduratu nintzen. 1961ean, Santa Marina bizi izatera joan ginenean, eta geroago, Uriburun etxea erosi genuen. Duela lau urte alargundu nintzen, baina Uriburun bizi naiz oraindik.

Eta aisialdian zer egiten duzu?

Lagunekin paseatzea oso gustuko dut. Horrez gain, biloba bi ere baditut, eta oso gustura zaindu izan ditut. Aspaldian, paseatzeaz gain, eguinetan eta domeketan Uribarriko zaharren elkartera joaten naiz, lagunekin berba egiten eta jokoan egitera.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK
Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ARRASATE
Josu Azkarate
Azaroaren 14an, 6 urte.
Zorionak! Aita, ama, Aitor,
tia Mila, tio Pepe...



ARRASATE
Ekhi González
Azaroaren 13an, 12 urte.
Zorionak! Maite zaitugun
guztun partetik.



ARRASATE
Lorea Otadui
Azaroaren 16an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Unai Viteri
Azaroaren 11n, 6 urte.
Zorionak! Xabi, aita eta
ama.



ARRASATE
Haritz Ezpeleta
Azaroaren 20an, 6 urte.
Zorionak! Aita, ama eta
Uxue.



ARRASATE
Asier Arizabaleta
Azaroaren 18an, 32 urte.
Zorionak! Zumaia eta
Gurutze.



ARRASATE
Eneko Álvarez
Azaroaren 12an, 27 urte.
Zorionak, *Wallace!* Koa-
drilakoen partetik.



ARRASATE
Nerea Larrad
Azaroaren 17an, 2 urte. Zorionak!
Idoia, Roberto, Lola, Vidal,
Amaia, Rafa, eta besteak.



ARRASATE
Maria Luisa Martínez
Azaroaren 16an, urtebetetzea.
Zorionak! Semeen eta errainen partetik.



ARRASATE
Ainhoa Aranburu
Azaroaren 17an, 5 urte.
Zorionak! Familiakoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Eros ezazu
Ibai-Arteko dendetan
eta irabaz ezazu
600 euroko sari berezia!

Ez galdu aukera!
Azaroko zozketa abian da.

eta gainera...
abenduan 3.000 €ko
sari erraldoia




EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Ze izen jarri diote Cerrajera lantegia zegoen lekuan egin dituzten etxebizitza berrien atzeko kaleari?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Torrealde Errioxako ardo beltza
Tenpranilloa

1,59€ 265 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MERTXE ETXEBARRIAarendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mertxe!
Galderen erantzun zuzenak:
Eguaztena eta egubakoitza.

ARRASATEKO HISTORIA

186 urte Monterrongo kondea hil zutela

ION ANDER RAMOS

On Santiago Elias de Aranguren, Monterrongo konde eta Arrasateko alkatea, 1816ko azaroaren 17an tirokatu zuten. Tiroak hankan jo zion, eta bi egun hilzorian egon eta gero, azaroaren 19an hil zen. Azaroaren 17ko egun hartan, alkatea osteratxo egitera irten zen. Zarugaldeko zubia igaro eta Zurgin kantoi-rako bidea hartu zuenean, Santa Barbarako bidetik eskopeta batekin tiro egin zioten. Gau iluna zen, eguraldi txarra egiten zuen, eta, horren ondorioz, agintaritzaren agenteek ezin izan zioten hiltzailearen arrastoari jarraitu.

Gaur egun, oraindik ere, inork ez daki zergatik hil zuten. Hipotesi asko daude. Garai hartan egin ziren ikerketen arabera, badirudi mendeku nahia izan zela hilketaren arrazoia, baina ezin izan dute hori frogatu. Esan gabe doa garai hartan gertaera hura oso garrantzitsua izan zela, eta hilketaren gainean gauza asko idatzi zirela. Klean zurrumurruak ziren nagusi, mundu guztiak zuen ustezko hiltzaile

*Gau iluna zen,
eguraldi txarra
egiten zuen, eta
agenteek ezin izan
zuten inor harrapatu*

bat, baina inortxok ere ezin izan zuen ezer frogatu. Agintaritzaren agenteek, lehenago esan dugun moduan, hilketaren uean ezin izan zuten hiltzailea harrapatu, baina hilketaren ondoren hainbat atxilotaketa izan ziren. Galdeketa luzeak, ikerketak, salaketak..., denetik izan zen. Hasiera baten atxilotutako gehienak arrasatearrak ziren, baina Bergarako, Oñatiko eta Gipuzkoako beste hainbat herritako jendea ere atxilotu zuten. Azkenean, Santiago de Nuarbe, Ignacio Uribealgo eta Carlos Antonio de Elkano akusatu zituzten. Epaiketa prozesuak sei urte luze iraun zuen, eta 1822ko ekainaren 2an, errugabeak zirela frogatu eta aske utzi zituzten.

*2 de Junio de 1822 —
Se les notifico la libertad a Santia-
go Nuarbe y Ignacio Uribealgo
presuntos asesores.
Cinuenta duros de multa al
alcalde que era Don Jose Maria de
Berruete quietos por que no tuvo
deklaracion al herido antes de
morir —
Tambien fue condenado con costas
el Consultor de la provincia
allegado Doctor Don Jose de Gueba
Se tiraron un tiro de fusil
al retirarse a su casa un
Domingo por la noche despues
de la ronda junto al puente de
Zarugalde —
Noticia de la muerte de Don
Santiago Elias Conde de Montearan*

Juan Carlos Guerrak Monterrongo kondearen hilketaren gainean eginiko eskuizkribua.

LABUR

Aramaioko ordezkariak Behobia-Donostian

Aramaiokarra ere izan ziren aurreko domekan Behobia-Donostia lasterketan. Neskak eta mutilak izan ziren; guztira, zazpi lagun. Mutilen artean Josu Bideburuk egin zuen denborarik onena: 1:33:18; Aitor Arana hirugarrena izan zen (1:33:41); eta Aitor Axpek eta Jon Andoni Axpek denbora bera egin zuten (1:46:08). Josu Bideburuk adierazi digunez, "bestelako lasterketa batzuekin alderatuz gero, desberdina eta arraroa da. Jende mordoak parte hartzen du, eta horrek zaildu egiten du; baina, era berean, parte hartzaileen artean giro ona dago, eta ikusleek izugarri animatu gintuzten, bereziki, neskak". Nesken artean, bi aramaiokarra parte hartu zuten: Maria Jesus Ruiz de Azua izan zen iritsi zen lehenengoa (1:45:23); eta Elena Zubizarretak 1:46:30 egin zuen. Elena Zubizarretak bost urte darmatza Behobia-Donostia lasterketan parte hartzen.

PARTXIS LEHIAKETA



Pozik, asteburuko Partxis Lehiaketarekin

Berrogeita lau lagunek parte hartu zuten Txirritola Euskara Elkartek zapatuan antolatutako Partxis Lehiaketan, gehienak, 6 eta 12 urte artekoak. Hiru irabazle izan ziren partaide guztien artean, adinaren arabera sailkatuta: 6 eta 12 urte artekoen artean Igor Oianguren irabazi zuen; 12 eta 16 urte artekoen artean Jone Arriolabengoak; eta nagusien artean Alberto Azurmendi izan zen garaile. Antolatzaileak pozik daude herritarren parte hartzearekin, eta herritarrek ere gustura parte hartu zuten lehiaketan. /UBANE MADERA

GANTZAGAKO JAIK



Eguraldi eskasa baina giro polita Gantzagan

Eguraldiari kasurik egin barik, Gantzagakoak jairik jai ibili ziren asteburuan. Barikuan eta zapatuan, musika izan zen nagusi, txistularien eta Aretxabaletako abesbatzaren eskutik. Zapatuan, umeen jokoak egin zituzten, arratsaldean, eta erromeria, gauean, biak ere aterpean. Ziklismo lasterketa ere izan zen, domekan. Francisco Gutiérrez zaldibartarra izan zen garaile (munduko txapeldunordea da); auzoko lehena, berriz, Aitor Errasti izan zen, eta umeetan, Mikel Altuna. Bestalde, Miguel Lurik eta Jose Luis Andresek irabazi zituzten mus eta tute txapelketak.

BOTEPRONTOAN/ Asier Agirre · AHT Gelditu Elkarlana taldeko kidea

“Geure bizi kalitatea txikitu egingo du eta giro naturala guztiz eraldatuko du trenak”

Abiadura Handiko Trena erakitzekeo zundaketak egiten hasi dira ibarrean, tartean, Aramaion. Horren ondorioz, berriro piztu dira tren horren kontrako jarrerak eta ekimenak. Horien artean dago Aramaio AHTren kontrako taldea. Guk Asier Agirrekin berba egin dugu, taldeko kideetako batekin. Untzillako Azpiko Etxe baserrikoa da Asier:



Badirudi trena badatorrela? Badu itxura, bai. Zundaketak egiten, behintzat, hasi dira. Asmoa da 2003. urte barruan lanak hastea. Europatik dirua dute jasotzeko (milaka milioi), baina horretarako, 2006a baino lehen lanak egiten izan behar dira, eta 2010ean bukatuta.
Zergatik zaudete kontra? Bi jarrera daude: enpresaburuek eta gobernukoek, bulegotik begiratuta, horrelako proiektu batek izan dezakeen errentagarritasun ekonomikoa ikusten dute. Bestetik, esaten dute ingurumenari ez diola kalterik egingo eta horrelakoak... aurpegia garbitzeko. Guk uste dugu trenak ingurumenaren gain ikaragarritzko eragina duela. Gainera, trena hemen ez da geratuko; eta oraindik ez dute esan ea jendearendako den, gauzak eramateko edo zertarako

den. Hasieratik gaude proiektuaren aurka. Gure lana da proiektu horri aurre egiteko proposamena jendearen artean zabaltzea eta jendearengan euren eskubi-deekiko kontzientzia piztea.
Aramaioren zeni eragiten dio? Eragin zuzena jasango duten baserri gutxi agertzen dira proiektuan, sei-zazpi baserri. Baina bakarrik tunel bako zatiak agertzen dira kaltetutako zati moduan; eta guk uste dugu tunela dagoen pareko guneen gain ere baduela eragina trenak. Adibidez, Aramaion 3,5 kilometroko tunela dago, proiektuaren arabera. Horrek irteerak behar ditu (kearendako, larrialdiendako...), eta horren berririk ez dute ematen. Tunela egiteko atera behar duten milaka tona lur non sartu behar duten ere ez dute esaten; eta gune horien inguruko ibarretan hustuko

dute lur hori. Oro har, geure bizi kalitatea txikitu egingo du eta giro naturala guztiz eraldatuko du trenak.
Hala ere, Aramaioko Udalak ez du esan kontra dagoenik... Ez du esan ez alde ez kontra dagoenik. Adibidez, laginak egiteko ahozko baimena eman du, baina idatzizkorik ez.
Madrazok beste proiektu bat aurkeztu du; zer deritzozu? Y proiektua orain dela zortzi-bederatzi urte atera zen; hortaz, ez dakit Madrazo nora begira egon den laginak egiten hasi eta handik gutxira beste proiektu bat aurkezteko. Hobe da, baina ez dut uste aurrera egingo duenik, hasi dira-eta beste proiekturako laginak egiten. Edozelan ere, lehendik badago beste proiektu bat: Madril-Paris Mediterraneo aldetik. Hori da ekonomikoki errentagarriena, baina Euskal Herriatik ez litzateke pasatuko, eta Eusko Jaurlaritzak ez du hori nahi.
Zer esango zenieke herrikideei? Horrelako proiektu bat dagoen-an, lehenik, proiektuaren berri izateko. Eta hausnarketa egin dezatela ea orain zelako ibarra dugun eta zelakoa izango dugun trena egin eta gero. Eskertuko nuke, era berean, herritarrek interesa, behintzat, erakustea.

“Hausnarketa egin beharko lukete ea orain zelako ibarra dugun eta zelakoa izango dugun gero”

“Eskertuko nuke Aramaioko jendeak proiektu horren aurrean, behintzat, interesa erakustea”

OHARRAK

ARGI MOZKETA
Astelenean, martitzenean edo eguztenean argia moztuko dute unetxo batez Aramaio osoan. Hiru egun horietako baten izango da, baina ezin dugu zehaztu noiz, hori eguraldiaren araberrakoa izango da-eta. Sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu gura die Udalak herritarrei.

ZINEMA
Spiderman filma emango dute kultura etxeko aretoan; betiko moduan, domekan, 17:00etan.

ARETO FUTBOLA
Ez zuten partidu onik jokatu Bañerakoek Oriamendiren kontra, 6-3 galdu zuten-eta aramaiokarra. Oraingo asteburuan atsedean hartuko dute. Bañerako kadeteek, berriz, denboraldia estreinatuko dute bihar, zapatua. Gasteizko Ariznabarra auzoko kiroldegian jokatu-ko dute, San Jose Menesianos taldearen kontra. Partidua goizeko hamaiketan hasiko da. Eta Bañerako neskak ere laster hasiko dira txapelketan jokatzeko.

ERRETRATUZAHARRA

Garagartzako
Iturribideko
jokalariak

Gaur egun Zaldibarko Aretoko Futbol Txapelketa egiten den moduan, garai baten, Arrasaten beste txapelketa antzerako bat egiten zuten.

Udan jokatzeko zuten. Eta futbol zaleendako oso txapelketa berezia izaten zen. Kontua da Mondra Futbol Taldeak txapelketa hura aprobetxatu, eta herriko talde nagusirako jokalariek aukeratzeko zituela.

Hain justu ere, oraingo asteko argazki zaharrak udako txapelketarako sortutako futbol talde horietako bat erakusten digu. Ikusten den moduan, taldeak Club Deportivo Iturribide zuen izena. Izan ere, bi izan ezik (Santa Ageda auzotik fitxatu zituzten bi horiek), gainerako jokalariek Garagartzako Iturribide kalekoak ziren. Are gehiago, gazte gehienak kale horretako Zabalbide etxeak ziren.

Argazkian ikusten dugun talde horretatik irten zen, adibidez, Jokin Iria, Mondrako atezain izandakoa.

Argazkia 50eko hamarkada ingurukoa da. Honako hauek dira Iturribideko



jokalariak, goiko ilaran, ezkerretik hasita: Jose Maria Heriz, Roman Otxandiano, Joseba Abarrategi, Jose Martin Larrinaga "Mardo", Víctor Errasti eta Iñaki Errasti. Beheko ilaran,

berriz, honakoak daude, ezkerretik hasita: Jose Cruz Leibar, Pedrito Uribarren, Jokin Iria (atezaina), Alfonso Orobengoa, José Luis Azkuaga "Petro" eta Karmelo Mendarozketa.

Argazkia eta informazioa:
Felix Gaintzarain
Urtea:
50eko hamarkada


NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Herritarrak,
Portaloian
aurrean

Portaloiako eta Seber Altubeko argazki zaharretakoa izango da hau. Autoak baino gehiago, gurdiak dira protagonista argazkian. Garai hartako bizibidea, batez ere, lau ogibidetan oinarritzen zen: nekazaritza, abeltzaintza, meatokiak eta burdinolak. Horrez gainera, ezin ditugu ahaztu beste ogibide batzuk: zurginak, arotzak, zapataginak, okinak, harakinak...




≈ 1915 Portaloia zen Arrasateko ate nagusia. Hiru kale nagusiek bat egiten dute Portaloian. Arkua 1768an berritu zuten.



2002 Arrasate asko handitu da, baina Portaloiak ez du garrantzirik galdu. Jende askoren elkargune da, baita umeen jolastoki ere.

Garagardo ona, giro hobea

**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62**"PAL"**

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

GIDA 2003 abian!

Aurten, telefono
partikularrak aurkitu ahal
izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

ARROZTEGIA
LAGUN

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL
KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE

Tel./Faxa: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea

Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak

Gasa • Berogailuak

Giltzak



- Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
- Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63